

UDAL ESKUMENENKO ZERBITZUAK EMAN EDO JARDUERA ADMINISTRATIBOAK EGITEAGATIK PREZIO PUBLIKOEN
ORDENANTZA ARAUTZAILEA

UDAL ARGITALPENETAN IRAGARKIAK JARTZEA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua

Entitate lokal honek, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, Eranskinean zehazten diren prezio publikoak ezarri eta exijitzen ditu zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira prezio publiko horiek, eta haren barruan geratzen dira jasota.

2. Artikulua

Ordenantza hau entitate lokalaren lurralde eremu osoan aplikatuko da.

II. EGINTZA EZARGARRIA

3. Artikulua

Administrazio Lokalaren aldetik zerbitzu bat eskaintzeak edo jarduera bat burutzeak eratzten du zergagaia, dela eskatua izan delako, dela partikularren egintza edo hutsegiteen ondorioz zeharka probokatu delako.

III. SUJETO PASIBOA

4. Artikulua

1. Honako hauek izango dira, zergadun bezala, subjektu pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 33. artikuluan aipatzen dituen entitateak, zerbitzu edo jarduerak eskatzen dituztenean edo haien onura edo eragina jasotzen dutenean.

2. Zergadunaren ordezkotzat hartuko dira:

- a) Etxebizitza edo lokalen okupatzaileei onura edo eragina dakarkieten zerbitzu edo jarduerengatik ezarritako prezio publikoetan: higiezin horien jabeak. Horiek, hala dagokienean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuota.
- b) Suhiltzaile zerbitzuengatik, aurrien prebentzioagatik, eraikuntza eta eraipen zerbitzuengatik, salbamendukoengatik eta, oro har, pertsona eta ondasunak babesteko zerbitzuengatik ezarritako tasetan, zerbitzuaren mantenimendua barne, arriskuaren entitate edo sozietate aseguratzaileak.
- c) Lurzoruari eta hiri antolaketari buruzko araudian jasotako hirigintza lizentziak emateagatik ezarritako tasetan: obren eraikitzaileak edo kontratistak.

5. Artikulua

Prezio publikoak ordaintzera behartuta daude:

- a) partikularren eskariz egindako zerbitzu edo jardueren kasuan, eskaera egin dutenak.
- b) partikularrek eskatu ez baina, horien egintza edo hutsegiteengatik, derrigorrezkoak gertatu diren zerbitzu edo jardueren kasuan, egintza edo hutsegite horiek leporagarri dituztenak.

6. Artikulua

Ordenantza honetatik eratorritzen diren zerga zorretan, subjektu pasiboarekin batera, tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonak ere erantzungo dute.

IV. SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIAK

7. Artikulua

Salbuespenak edo bestelako onura fiskalak aplikagarri diren xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.

V. OINARRI EZARGARRIA

8. Artikulua

Oinarri ezargarrria zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitzak eratzten du, Eranskinean jasotakoaren arabera.

VI. KUOTA

9. Artikulua

1. Zerga kuota tarifa bat, espreski erabakitako kopuru finko bat edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliz finkatuko da, Eranskinean ezarritakoaren arabera.

VII. SORTZAPENA

10. Artikulua

1. Zerbitzua edo jarduera egiten denean sortzen da prezio publikoa.

VIII. LIKIDAZIOA ETA DIRUSARTZEA

11. Artikulua

Administrazio Lokalak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da Eranskinak exakzio bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

IX. TASEN KUDEAKETA

12. Artikulua

Ordenantza honetan arautzen diren prezio publikoak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta, halaber, zerga urrapenak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzerakoan, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.

X. AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau aldarazten duen akordioa eranskinean adierazten den batzarrean hartutakoa da. Ondorioak data horren hurrengo urteko urtarrilaren lehenetik sortuko ditu, derogatu edo aldatzea erabakitzen ez den bitartean.

E R A N S K I N A

Azken aldaketaren onarpen data:	2019-10-10
---------------------------------	------------

UDAL ARGITALPENETAN IRAGARKIAK JARTZEAGATIK	
Modulo bakoitza	65,00 € + BEZ
Modulo bikoitza	121,00 € + BEZ
Orrialde erdia	231,00 € + BEZ
Orrialde osoa	453,00 € + BEZ